

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO
BILERA**

2012ko irailaren 7a

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamabigarren urteko irailaren zazpian, ortzirala, arratsaldeko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Peio Etxabide Gartzia alkate jaunaren lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri direla: Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, Severiano Txoperena Matxikote, Izaro Mitxelena Rekondo, Jose E. del Río Echeverria, José Luis Echegaray Andueza, José Esteban Echeveste Apezteguía, Pedro Apezteguía Alzugaray, Victoriano Ruiz Álvarez eta María Victoria Gortari Aldave jaun-andreak.

Ainara Flores Compains zinegotzi andrea gai-zerrendako laugarren puntua eztabaidatzen ari denean sartu da bilkuran.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira:

**1 - AZKEN BILKURARI DAGOKION
AKTAREN ONESPENA.**

Osoko bilkurak aho batez azken bilkuraren akta onartu du, 2012ko uztailaren 27koa.

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL
AYUNTAMIENTO**

7 de septiembre de 2012

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes siete de septiembre del año dos mil doce, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Peio Etxabide Gartzia y con la asistencia de los siguientes concejales: don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, don Severiano Txoperena Matxikote, doña Izaro Mitxelena Rekondo, don José E. del Río Echeverria, don José Luis Echegaray Andueza, don José Esteban Echeveste Apezteguía, don Pedro Apezteguía Alzugaray, don Victoriano Ruiz Álvarez y doña María Victoria Gortari Aldave.


La concejala doña Ainara Flores se incorpora a la sesión mientras se debate el cuarto punto del orden del día.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 - APROBACIÓN DEL ACTA
CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 27 de julio de 2012.



**2 - HASIERAKO ONESPENA
AURREKONTUAREN ALDAKETARI (6/2012
ESPEDIENTEA).**

Irailaren 4an kontu-hartzaileak eginiko txosten batean, adierazten du beharreak dela transferentzia bat egitea 2012 urterako Udalaren aurrekontuan.

Hain zuzen ere, 12.409,60 euroko partida bat sortu behar da, futbol-zelaiko belar artifiziala aldatzeari zuzendua.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa aztertuta, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioako Foru-legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez honako hau erabaki du:

1.) Hasiera batean onartzea aurrekontua aldatzeko 6/2012 espedientea.

2.) Espedientea hamabortz egun baliodunean jendaurrean paratzea, aldeztuz aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarkien taulan iragarki bana paratuta, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iduritzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

**3 - ESPAINIAKO GOBERNUAK
ONARTURIKO MURRIZKETEI BURUZKO
AKORDIO-PROPOSAMENA.**

Espedientean ageri da akordio-proposamen bat, abuztuaren 7an aurkeztua (2.186. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean).

Horri buruz eztabaidatu ondoren, Osoko

**2 - APROBACIÓN INICIAL DE LA
MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO
(EXPEDIENTE 6/2012)**

En el informe emitido por el interventor con fecha 4 de septiembre, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2012.

Se trata concretamente de 12.409,60 €, destinados a la sustitución de la hierba artificial del campo de fútbol.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Dar su aprobación inicial al expediente de modificación presupuestaria 6/2012.

2º) Someterlo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**3 - PROPUESTA DE ACUERDO
SOBRE RECORTES APROBADOS POR EL
GOBIERNO DE ESPAÑA.**

Consta en el expediente una propuesta de acuerdo, presentada con fecha 7 de agosto (entrada nº 2.186 en el Registro General del Ayuntamiento).

Tras su debate, el pleno la aprueba por

bilkurak aho batez onartu egin du, eta, ondorioz, honako erabaki hauek hartu ditu:

1. Lesakako Udalak, Lan-Erreformari eta Heziketan eta Osasunean Espainiako Gobernuak onartu dituen bat bertzearen ondoko murrizketei uko egiten dien aldi berean, Nafarroako Gobernuari eskaera egiten dio Foru Komunitatean gure autogobernuko foru-erregimena defendatzeko eta zerbitzu publikoen eta giza-politiken alde egin dezala, Ongizate Estatuaren zutabeak direla iruditzen zaigulako.

2. Lesakako Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio konstituziokontraotasun-errekurtsoak aurkezteko Estatuko Gobernuaren dekretuei, zeinak behin eta berriz heziketa eta osasuna murriztea dute helburu, foru-kompetentziak inbadituz eta, Parlamentuak egin duen modu berean, eskatuz aipaturiko neurrien aplikazioaren kautelazko etenaldia inkonstituzionaltasun kontuaren funtsa ebazten ez den artean.

3. Lesakako Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio beharrezkoak izan zitezkeen errekurtso judizial arunt guztiak edo eskumen izaerakoak aurkezteko, eskumen-marko nafarraren defentsarako eta, zehazki, heziketako, osasuneko eta funtzio publikoko materietan.

4. Lesakako Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, bere eskumen eksklusiboak erabiliz, abiaraz ditzala beharrezkoak diren neurri juridiko eta ekonomikoak Nafarroako Foru Komunitateko heziketa eta osasun ereduak bermatzeko eta baita haien izaera publiko, unibertsal eta doakoa ere.

unanimidad y, en consecuencia adopta los siguientes acuerdos:

1. El Ayuntamiento de Lesaka, al tiempo que rechaza la Reforma Laboral y los sucesivos recortes en Educación y Sanidad aprobados por el Gobierno de España, insta al Gobierno de Navarra a defender nuestro régimen foral de autogobierno en Navarra y los servicios públicos y políticas sociales en la Comunidad Foral, que consideramos pilares del Estado de Bienestar.

2. El Ayuntamiento de Lesaka insta al Gobierno de Navarra a que presente recursos de inconstitucionalidad a los decretos del Gobierno del Estado que reiteradamente pretenden recortar la educación y la sanidad invadiendo competencias forales, tal y como ha hecho el Parlamento, solicitando en el mismo la suspensión cautelar de la aplicación de dichas medidas en tanto no se resuelva el fondo de la cuestión de inconstitucionalidad.

3. El Ayuntamiento de Lesaka insta al Gobierno de Navarra a interponer cuantos recursos judiciales ordinarios o de carácter competencial fueran necesarios para la defensa del marco competencial navarro y, en concreto, en las materias de educación, sanidad y función pública.

4. El Ayuntamiento de Lesaka insta al Gobierno de Navarra a que en el uso de sus competencias exclusivas ponga en marcha cuantas medidas jurídicas y económicas sean necesarias para garantizar los modelos educativos y sanitarios de la Comunidad Foral de Navarra así como su carácter público, universal y gratuito.

5. Lesakako Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio behar diren akzioak egin ditzan abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa -LORAFNA-, aplikazioaren eta garapen integralaren defentsarako, ez onartuz mugarik, aldaketarik edo haren interpretazio murriztailerik.

6. Lesakako Udalak mozio hau Nafarroako Gobernuari, Foru Parlamentuari, Gorte Nagusiei eta Espainiako Gobernuari bidaliko die.

4 - AKORDIO-PROPOSAMENA, UDAL LANGILEENTZAT KONPENTSAZIO-ORDAINSARI BATI BURUZKOA.

Abuztuaren 7an, Udaleko Erregistro Orokorrean akordio-proposamen bat jaso zen (2.185. sarrera), Gobernuko presidentek iragarritako neurri ekonomikoekin zerikusia duena.

Espedientean ageri da idazkariaren ohar bat, abuztuaren 28koa. Adierazten du interes pertsonala duenez afera honetan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen -administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio-prozedura arruntari buruzkoa- 28. artikuluan ezarritakoarekin bat, uko egin behar diola prozeduran parte hartzeari. Gaineratzen du, horregatik, Udalak legalki bertze teknikari batekin aholkatu behar izanen duela.

Ondoren, eztabaida hasi da. Une horretan bilkurara sartu da Ainara Flores Compains zinegotzi andrea.

5. El Ayuntamiento de Lesaka insta al Gobierno de Navarra a realizar las acciones necesarias en defensa de la aplicación y desarrollo integral de la Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra -LORAFNA- no admitiendo limitaciones, alteraciones o interpretaciones restrictivas de la misma.

6. El Ayuntamiento de Lesaka remitirá esta moción al Gobierno de Navarra, al Parlamento Foral, Cortes Generales y Gobierno de España.

4 - PROPUESTA DE ACUERDO SOBRE UNA PAGA DE COMPENSACIÓN PARA LOS EMPLEADOS MUNICIPALES

El día 7 de agosto se recibió en el Registro General del Ayuntamiento (entrada nº 2.185), una propuesta de acuerdo, en relación con las medidas económicas anunciadas por el presidente del Gobierno.

Consta en el expediente una nota del secretario de fecha 28 de agosto. Señala que por tener interés personal en el asunto y conforme a lo establecido por el artículo 28 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común, debe abstenerse de intervenir en el procedimiento. Añade que, debido a ello, el Ayuntamiento tendrá que asesorarse legalmente con otro técnico.

Seguidamente se inicia el debate. En ese momento se incorpora a la sesión la concejal doña Ainara Flores Compains.

Jatorrizko testuari puntu osagarri bat gehitu ondotik, Osoko bilkurak aho batez honako erabaki hauek hartu ditu:

1 - Lesakako Udalak bere erabateko arbuiatzea, erakuts diezaiela "doikuntza-neurriak" deiturikoei, Mariano Rajoy jaunak iragarritakoak 2012ko uztailaren 11n, asteazkenean, eta haren Gobernuak onartu egin zituenak hile bereko 13ko Ministro-Kontseiluak egin zuen bileran.

2 - Lesakako Udalak bere konpromisoa erakuts dezala beharrezko mekanismo juridiko eta politiko guztiak aktibatuzeko, aipaturiko neurri-multzoen aplikazioa gure herrian galarazteko asmoz, Nafarroari dagokion Autogobernuaren baliabideen bidez.


3 - Udal lan arloaren harira, eta langileei dagokienez, bai lan-kontratudunei bai funtzionarioei, iruditzen zaigu "aparteko ordainsaria" kentzea, gaurko krisi ekonomikoaren efektuak bidegabeki enplegatu publikoen gainean berriz erortzea egiteaz gain, ez datorrela bat Estatuaren eta Foru Erkidegoaren arteko kompetentzia banaketarekin. Beraz, proposatzen dugu erabaki dadila gure aurrekontuetan 14. soldata edo "eguberriko estra" deiturikoa aurrez ikusitakoaren arabera ordaintzea. Rajoy jaunaren Lege-Dekretua dela medio, ezin baldin bada hori bete, nolabaiteko metodoren bat artikulatzea 2012ko abenduan langile guztientzako kopuru beragatik kobratzeko "kompentsazio-ordainsari" bat onartzeko eta horrela betez gure 2012ko aurrekontuetan aurrez ikusitakoa.

Tras la incorporación de un punto suplementario al texto original, el Pleno adopta por unanimidad los siguientes acuerdos:

1º- Que el Ayuntamiento de Lesaka muestre su total rechazo a las denominadas "medidas de ajuste" anunciadas por Don Mariano Rajoy el miércoles día 11 de julio de 2.012 y aprobadas por su Gobierno en la sesión del Consejo de Ministros del 13 del mismo mes.

2º- Que el Ayuntamiento de Lesaka muestre su compromiso para activar todos los mecanismos jurídicos y políticos necesarios al objeto de impedir que el conjunto de dichas medidas sean de aplicación en nuestra localidad, a través de los resortes del Autogobierno que corresponde a Navarra.

3º- En cuanto al ámbito laboral municipal se refiere y en relación al personal tanto laboral como funcionario, entendemos que la supresión de la "paga extra", además de hacer recaer injustamente sobre los empleados públicos los efectos de la actual crisis económica, no se ajusta al reparto de competencias entre el Estado y la Comunidad Foral, por lo que no debe ser de aplicación en Navarra. Por lo tanto proponemos que se acuerde abonar según lo previsto en nuestros presupuestos la nómina nº 14, o la llamada "extra de navidad". En el caso de que esto no pudiera cumplirse dado el decreto ley del Sr. Rajoy, articular algún método para aprobar una "paga de compensación" a cobrar en el mes de diciembre de 2.012 por la misma cuantía para todos los trabajadores y cumplir de esta forma lo previsto en nuestros presupuestos de 2.012.



4 - Lesakako Udalak muturreko larritasun sozial, politiko eta ekonomikotzat jotzen du 2012ko uztailaren 13an Ministro Kontseiluak onarturiko dekretuan aipatzen diren neurriek dakarten Nafarroako Autogobernuaren aurkako eraso, frontalki talka egiten baitute justizia sozialarekin eta Nafarroako borondate politikoarekin.

5 - Azkenik, Lesakako Udala erabat ados agertzen da Foru Lege proposamenarekin, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahalmenaren galera dela-eta. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko 70. Aldizkari Ofizialean argitaratu da, 2012ko irailaren 7koa.

5 - IGNACIO ECHEGARAY ZUZAYAK SUSTATURIKO ONDASUN KOMUNALEI BURUZKO TRANSAKZIO HITZARMENA.

1995eko urriaren 23ko Nafarroako 131. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri-ondasunak berreskuratzeko Transakzio-Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena.

Espedientean, hitzarmenaren zirriborroa ageri da, eta, hor, Basartea S.L. enpresako Andrés Zelaieta teknikari jaunak eginiko informea dago. Halaber, bada Nafarroako Gobernu Komunalen Atalak 2012ko abuztuaren 8an eginiko alde aurreko aldeko txostena. Zirriborroak Udaleko Mendiko Batzordearen oniritzia ere jaso du.

Hitzarmenaren xede den azalera 178.596

4º- El Ayuntamiento de Lesaka, considera de extrema gravedad social, política y económica la agresión al Autogobierno de Navarra que suponen las citadas medidas del decreto aprobado por el Consejo de Ministros del día 13 de julio de 2.012, ya que chocan frontalmente con la justicia social y la voluntad política de Navarra.


5º) Finalmente, el Ayuntamiento de Lesaka muestra su plena conformidad con la proposición de Ley Foral por la que se crea, con efectos para el año 2012, un complemento personal transitorio, por pérdida de valor adquisitivo. La misma ha sido publicada en el Boletín Oficial del Parlamento de Navarra nº 70, de 7 de septiembre de 2012.

5 - CONVENIO TRANSACCIONAL DE BIENES COMUNALES PROMOVIDO POR IGNACIO ECHEGARAY ZUZAYA.

En el Boletín Oficial de Navarra nº 131, de 23 de octubre de 1995, se publicó el Decreto Foral 457/1995, de 9 de octubre, que aprobaba las Bases del Convenio Transaccional sobre recuperación de bienes comunales en el municipio de Lesaka.

En el expediente consta el borrador del convenio, que incluye el correspondiente informe, suscrito por el técnico de la empresa Basartea S.L. don Andrés Zelaieta. Hay asimismo un informe previo favorable emitido con fecha 8 de agosto de 2012 por la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra. El borrador ha recibido asimismo el visto bueno de la Comisión de Montes del Ayuntamiento.

La superficie objeto de convenio es de



m2koa da. Azalera horretatik, 34.431,52 partikularrentzat izanen dira eta gainerako 144.164,48 m2ak, berriz, herri-jabetzakoak.

Ignacio Echegaray Zozaya jaunari egokitu zaion azaleraren zati bat Udalaren Hirigintza-Planaren arabera nekazaritza- eta abeltzaintza- produktibitate ertaineko lur urbanizaezintzat hartutako eremuan dago. Planaren Hirigintza-Araudi Orokorraren 52. artikulua arabera, horrelako lurzoruetan, familia bakarreko etxebizitzak eraikitzen ahal dira, baldin eta zenbait baldintza betetzen badira.

Puntu horri dagokionez, 2012ko abuztuaren 21ean, interesdunak eskabide bat aurkeztu zuen (Erregistro, Orokorreko 2.259. sarrera). Eskabide horren bitartez adierazten du ez duela asmorik esleitzen zaion nekazaritza- eta abeltzaintza- produktibitate ertaineko lursailean eraikitze eta, hori hala, Udalak 2006ko ekainaren 9ko osoko bilkuran ezarritako baldintzak onartzen dituela.

Espedientean, halaber, Udaleko idazkariak abuztuaren 31n eginiko txosten bat ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikulua eta Toki Erregimeneko Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 45.2.n artikulua (toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko azaroaren 16ko 57/2003 legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:


178.596 m2. De ellos 34.431,52 m2 serán para el particular y los restantes 144.164,48 m2 para el comunal.

Parte de la superficie atribuida a don Ignacio Echegaray Zozaya se ubica en una zona clasificada por el Plan Municipal de urbanismo como suelo no urbanizable de mediana productividad agrícola y ganadera. Conforme al artículo 52 de la Normativa Urbanística General del Plan en ese tipo de suelo resulta posible la construcción de viviendas unifamiliares, siempre que se cumplan determinadas condiciones.

En referencia a este punto, el día 21 de agosto de 2012 el interesado presentó una instancia (entrada nº 2.259 en el Registro General) mediante la que señala que no tiene intención de edificar en el terreno de mediana productividad agrícola y ganadera que se le asigna, por lo que acepta las condiciones establecidas por el Ayuntamiento en sesión plenaria de fecha 9 de junio de 2006.

Figura igualmente en el expediente un informe emitido por el secretario del Ayuntamiento el día 31 de agosto.

A la vista de todo ello, el Pleno con el voto unánime de sus miembros, con lo que se obtiene la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación exigida por el artículo 116.1 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra y el artículo 47.2 n de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local (modificada por la Ley 57/2003, de 16 de noviembre, de medidas para la modernización del gobierno local), acuerda:



Handwritten signatures and stamps at the bottom of the page, including a large signature on the left, a stamp in the center, and several other signatures on the right.

1.) Ignacio Echegaray Zozaya jaunak sustaturiko herri-ondasunen transakzio-hitzarmena onestea.

Horretarako, notario-eskrituran berriazko debekuak agertu beharko du, hitzarmenaren arabera berarentzat geratzen diren nekazaritza- eta abeltzaintza-produktibitate ertaineko lursailetan gutxienez hogeita bost urtean -tartean hirigintza-plangintza aldatu eta eraikitzea onartzen ez bada familia bakarreko etxebizitza isolatuak ez eraikitzeko. Debeku hori, gainera, Jabetza-Erregistroan inskribatu beharko da.

2.) Sustatzaileari jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko duela hura sinatzera.

3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guzien kopia izapidetuak, hark onespena emateko, Oinarrietako 14. artikulua dioenaren arabera.

4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

6 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guziei pasatu zaie posta elektronikoz (edo paperean, posta elektronikorik ez dutenei) azken bileratik gaur arte Alkatezako emaniko ebazpenen zerrenda (307.etik 354.era, biak barne)

1º) Aprobar el convenio transaccional de bienes comunales promovido por don Ignacio Echegaray Zozaya.

Al efecto, deberá incluirse en la escritura notarial una prohibición expresa de edificar viviendas unifamiliares aisladas en los terrenos de mediana productividad agrícola y ganadera que quedan para él en el convenio, durante un periodo mínimo de veinticinco años, salvo que ello fuera autorizado por una modificación del planeamiento urbanístico. Dicha prohibición tendrá que ser inscrita asimismo en el Registro de la Propiedad.

2º) Comunicar al promotor que deberá acudir al Ayuntamiento para firmarlo.

3º) Una vez cumplido lo dispuesto en el punto anterior, que se remitan copias diligenciadas de todos los documentos citados al Gobierno de Navarra, a fin de que éste proceda a su aprobación, de acuerdo a lo establecido en el artículo 14 de las Bases.

4º) Conforme a lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 30 de abril de 2004, el metro cuadrado de terreno rústico sujeto a convenio transaccional de bienes comunales se valorará en 0'16 euros.

6 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy (números 307 a 354, ambos inclusive).

Ondoren eta Toki-Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udaltzako eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihon gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

7 - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA.

Ez da egin.

Aipaturiko egunaren ilunabarreko zortzi eta zortzi minutu direla, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea ninguno.

7 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan

Siendo las veinte horas y ocho minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.

A collection of handwritten signatures and initials in black ink, scattered across the bottom half of the page. Some are enclosed in circles or other shapes. The signatures vary in style, from simple scribbles to more complex cursive.